



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

## EHIZA-POSTUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Natura Inguruneko Zuzendari Nagusia den Julian Unanue Bereziartua Jaunak honako hau jakinarazi dio Alkateak honi herriko ehiztariei jakitera emateko, Larraulgo Ehiza-postuei buruz:

*“Gure departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzeko Foru Agindua onartu du 2013ko uztailaren 16an. Foru Agindu horrek Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postu baimenduen erregistroa sortzen du.*

*Erregistro horretan dauden lerroetan eta postuetan Foru Aginduan ezarritakoa aplikatu behar da, eta, beraz, Lurraldeko Debekualdien Urteko Aginduan zehaztutako pase garaian eta postuen antolakuntza eta zozketa egiten ez duten postuak ezingo dira baimendutako postutzat hartu.*

*Departamentuak Usarrabi inguruan dauden postuak aipatutako erregistroan sartu ditu. Ehiza lerroari Usarrabi izena jarri diogu eta, guztira, 83 postu daude baimenduta, gehienak Larraulen baina baita ere Asteasun eta Alkizan.*

*Horren ondorioz, aurtengo denboraldian postu horietan hegazti migratzaileen ehiza debekatu dugu, postuen kudeaketa ezin izan delako aurrera eramanez. Orain, Gipuzkoako Ehiza Federazioak jakinarazi digu inguruko lerroetan postuen zozketak bukatuko direla datorren ostiralean, azaroaren 15ean. Hori dela eta, Usarrabi ehiza lerroen kudeaketa bukatutzat eman daiteke, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duen 2013ko uztailaren 16ko Foru Aginduan ezarritakoa aplikatuta. Beraz, ostiraletik aurrera Usarrabi inguruan ez da aipatutako Foru Agindua aplikatuko eta ehizan ibiltzea egongo da, ehiza-araudia jarraituz gero.”*

Besterik gabe, berri honen jakitun izateko bidaltzen dugu idatzi hau.

Larraulen, 2013ko azaroaren 15ean

